

## Itzulpengintza

Iban Zaldúa

Idazle obsesiboa naiz, badakit. Testua etengabe zuzen-tzen aritzen den horietakoa, orrialdez orrialde, lerroz lerro ia; idazketa inoiz amaitzen ez den lan horietako bat da, eta liburuak bukatutzat ematen baditut, azkenean, editoreen temaren ondorioz izaten da.

Nire azkeneko nobelak guztiz hustuta utzi ninduen, hainbeste ezen nekez irudikatzen bainuen neure burua beste bat idazten; hala ere, ez nuen uste guztiz biribilduta zegoenik. Horregatik, gaztelaniaz argitaratzeko aukera sortu zenean, ez nuen pasatzen utzi, eta nik neuk itzuli nuen lana. Ia jatorrizko bera idazten baino denbora luzeagoa eman nuen horretan, eta gauza asko aldatu nituen liburuan: azken batean, jakina da idazleok ez ditugula gure lanen itzulpenak egiten, bertsioak baizik.

Ahaleginak guztiz ase utzi ez ninduen arren, frantsesera itzultzeko aukera sortu zenean, ez nuen zalantzarik izan: gaztelaniazko egiteko agindua eman nuen. Eta hara non, frantseseko bertsioa irakurri ahala konturatu nintzen hura gaztelaniazkoa baino dezente hobea zela; hala, argialetxe ingeles batek obraren inguruko interesa adierazi zuenean, abiapuntutzat frantseseko itzulpena har zezatela erregutu nien.

Itzultzaile ingelesak, berriro ere, bikain egin zuen bere lana, eta emaitzaren irakurketak erakutsi zidan bazegoela askaerarik nik neuk eta frantseseko itzultzaileak konpondu gabe utzitako hainbat pasarteren arazoetarako.

Hungarierarako itzulpena ingelesekotik egitea proposatu nuen, beraz. Ez dut, jakina, hungariera ezagutzen, baina hiztegi baten eta gramatika txiki baten laguntzaz testua erreparatu ahal izan nuen, gainera, eta inpresio ezin hobea egin zidan: hungarierazko bertsioa guztien arteko onena zela ebatzi, eta eslovenierara itzultzeko oinarria izango zela erabaki nuen.

Gauza bera gertatu zen, ondorengo urteetan eta hurrenez hurren, txekiera, italiera, arabiera, nederlandera, zuluera, errusiera eta japonierarako itzulpenekin: bakoitza aurrekoa baino hobea iruditzen zitzaidan. Azken horren erreparoa egiteko nire adiskide batengana jo nuen, Ekialde Urruneko hizkuntzetan aditua dena, eta kontatu zidanak ideia bat eman zidan; azken batean, itzulpenekiko nire obsesioak menderatuta, urteak neramatzan ezer berririk idatzi gabe. Nobelaren euskararako itzulpena egiteko eskatu nion adiskideari.

Nire editoreari erakutsi eta orain arte idatzi dudana onena dela esan dit; datorren Durangoko azokan aurkeztuko da. Dena den, hasi naiz jada liburu horren gaztelanierako itzulpena lantzen, eta aldaketa batzuk sartuko ditudala uste dut...